

NOLA EMAN KOLIRIOAK HAURREI?

1 Ezertan hasi aurretik, **egon lasai**, eta hitz egin haurrari **goxo**. Ez da urdurituko, horrela.

2 Garbitu eskuak ondo, ur eta xaboiez, eta lehortu.

3 Astindu ontzia, erabilera-orriak hala badio.

4 Jarri haurraren atzean, eta bota iezaiozu burua atzeraka. Ahoz gora ere etzan dezakezu.



Haurtxoa bada, bildu ezazu tapakitxo batekin, haren besoak eta hankak geldirik edukitzeko.

5 Kendu tapa ontziari, eta utz ezazu leku garbi batean.

6 Esku batekin eutsi iezaiozu haurraren bekokiari, eta hatz txikiaren laguntzaz jaitsi leunki beheko betazala.



7 Heldu ontziari beste eskuarekin; jarri punta behera begira duela begitik ahalik eta gertuen, baina begia ukitu gabe.



8 Estutu pixka bat ontzia tanta bakar bat eror dadin beheko betazalean sortu den hutsartera.


9 Askatu beheko betazala, utzi begia kliskatzen, eta, berehala, kokatu hatz bat begi txokoan, eta estutu leunki.




10 Garbitu sobera dagoen kolirioa zapi garbi batekin. Itxi ontzia, eta garbitu berriz eskuak.

BAZENEKIEN?

...Haurra urduritzen bada eta begia ireki nahi ez badu, bota diezaiokezu tanta sudurretik gertuen dagoen partean, eta igurtzi leunki. **Ez da hain eraginkorra**, baino balio dezake.



Hain umea ez bada eta nahikoa adin badu, kolirioa bere buruari botatzeko gai izan daiteke, laguntzarik gabe. "Kolirioak ondo nola erabili" Kolirioak ondo nola erabili" izenekoan, ikasiko duzu nola.



! Eskerrak eman nahi dizkiogu Santi Mintegi Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pediatriako Larrialdietako Zerbitzuko pediatriari gai hau aukeratu eta testua berrikutegatik, bai eta egin dizkigun ohar eta iradokizunengatik ere. Eskerrik asko, halaber, Marivi Callejari eta Fátima Fernández-Gili eskaini dizkiguten argazki, azalduetako interes eta partaidetzarengatik.

COLIRIOS EN PEDIATRÍA

1 Antes de empezar, **mantén la calma** y háblale a la niña o niño en **tono tranquilo**. Evitarás que se altere.

2 Lávate bien las manos con agua y jabón y sécate.

3 Si lo indica el prospecto, agita el envase.

4 Colócate detrás e inclínale la cabeza hacia ti. También puedes acostarle de espaldas.



Si es un bebé, envuélvele con una mantita para mantener sus brazos y piernas quietas.

5 Quita la tapa del envase y déjala sobre una superficie que esté limpia.

6 Con una mano, sujeta la frente y, con el dedo meñique, baja suavemente el párpado inferior.



7 Con la otra mano, coge el envase y con la punta hacia abajo, colócalo lo más cerca posible del ojo, pero sin que llegue a tocarlo.



8 Aprieta suavemente el envase para que caiga una gota en el hueco formado por el párpado inferior.


9 Suelta el párpado inferior, deja que parpadee e, inmediatamente, coloca un dedo en el lagrimal, aplicando una suave presión.




10 Limpia el exceso con un pañuelo limpio. Cierra el envase y lávate de nuevo las manos.

SABÍAS QUE ...

... si se altera y mantiene cerrado el ojo, puedes echar la gota en la parte más próxima a la nariz y frotarlo suavemente. **No es tan eficaz, pero vale.**



... si tiene la edad suficiente, puede ser capaz de administrarse sin ayuda el colirio. La ficha i-botika "Cómo usar bien los colirios" te explica cómo hacerlo.



! Agradecemos a Santi Mintegi, pediatra del Servicio de Urgencias Pediátricas del Hospital Universitario de Cruces, la elección del tema y la revisión del texto, así como sus comentarios y sugerencias. Gracias también a Marivi Calleja y Fátima Fernández-Gil, por sus fotografías, su interés y su participación.